

Agustín Fernández Paz
Oin hegalariak
Itzultzaile: Manu Lopez Gaseni
Anaya-Haritz, 2001

Itzultzailea bere itzulpenaz mintzo denean

Badakit ez dela ohiko gauza norberaren lan bati buruzko erreseina egitea. Niretzat, esaterako, lehen aldia da; baina froga egin nahi nuen, eta hemen dago.

Agustín Fernández Paz 1992an ezagutu nuen, IBBYren Berlingo biltzarrean, hain zuzen. Haur eta Gazte Literaturaren Nazioarteko Elkarte horrek bi urtean behin egin ohi duen “Ohorezko zerrenda”ko kide gisa joan zen Agustín, *Contos por palabras* liburu zoragarria izan zela medio. Batzuetan, idazle bat pertsonalki ezagutzea etsigarria izaten da; kasu honetan, berriz, Villalbako galego hura ezagutzea bozkariagarria izan zen niretzat. Geroztik, haren libururen bat euskaratu nahian ibili naiz, aukera hau suertatu zitzaidan arte. Bitartean, ordea, Fernández Pazen beste liburu batzuek egin dute galegotik euskararako bidea: aipatutako *Iragarki-ipuinak*, *Lore erradiaktiboak*, *Neskatxak*, eta abar.

Eta hemen dago *Cos pés no aire* liburuaren itzulpena, nahiz eta niri kontu handiz egina izan dela esatetik haratago ez dagokidan. Umeentzako nobela laburra da, 11-12 urtetik aurrerakoentzat, esango nuke; eta egilearen beste obra asko bezala, sari baten bermearekin iritsi zaigu: “Raíña Lupa” izeneko haur literatura lehiaketarena.

Istorioak gizaki berezi bat aurkezten digu: airean ibiltzeko gaitasunaren jabe dela konturatu den pertsona arrunt bat. Baina egileari ez zitzaion Superman gehiago sortzerik interesatzen. Nahiago zuen bere desberdintasunaz ohartutako Daniel horren garapen psikologikoan sakontzea: hasierako beldurretatik berezkotasunaren erabateko onarpenera. Izan ere, narrazioak erakusten digunez, pertsona desberdinek gizartearen bazterkeria jasan behar izaten dute, eta pilatzen zaien sufrimendua ikaragarria da.

Horregatik, eta narratzaile-zintzotasunagatik ere bai, bukaera zabalik geratzen da. Indar berdingarriek desberdintasunak oro suntsituko dituzte? Ala, aurreko galdera baino are kezkarriagoa dena, azken batean ohartuko gara denok daukagula ezkutatu beharreko desberdintasunen bat?

Manu Lopez Gaseni